



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Antonio Oyarzabal pianistak *La Muse Oubliée* interpretatuko du, soinu-bidaia bat eginez Barrokotik Aro Garaikidera bitartean emakumeek egindako konposizioan barrena

- Kontzertuaren abiapuntua Londresen bizi den bilbotar pianistak izenburu berarekin egindako diskoa da: BBC Magazinek 5 izarrekin katalogatu zuen eta Fanfare aldizkariak 2021eko 5 piano-disko onenen artean sartu zuen.
- Oyarzabalek Karmele Larrinaga aktorearen laguntza izango du, zeinak saioan interpretatutako obren konpositoreei buruzko kapituluak eta pasadizoak kontatuko baititu.
- Emanaldia martxoaren 7an izango da, datorren asteartean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

Bilbo, 2023ko martxoaren 3a. – Antonio Oyarzabalen emanaldia izango dugu datorren astean Arriaga Antzokian, martxoaren 7an, 19:30ean. Pianista bilbotarra, Londresen bizi dena, bere jatorrizko hirira iritsiko da *La Muse Oubliée* interpretatzeko. Kontzertu hau oso berezia da, piano-joleak soinudun bidaia bat egiten baitu emakumezkoek Barrokotik Aro Garaikideraino egindako konposizioetan barrena. Emanaldian, **Karmele Larrinaga** aktorearen konplizitatea eta lankidetzak izango ditu, zeinak Oyarzabalek kontzertuaren egitaraurako aukeratutako musikagileei buruzko hainbat kapitulu eta pasadizo kontatuko baititu.

Programaren zati handi baten jatorria duela pare bat urte Oyarzabalek berak argitaratutako *La Muse Oubliée (Musa Ahaztua)* diskoan dago, kritika espezializatuak asko txalotutako grabazioan. Adibidez, BBC Magazinek 5 izar eman zizkion eta AEBko Fanfare aldizkariak 2021eko piano-musikako 5 disko onenen artean aukeratu zuen. Emanaldian zehar, Oyarzabalek aipatu diskoan sartu zituen konpositore batzuen piezak interpretatuko ditu, besteak beste, Mana Zucca, Emiliana de Zubeldia, Lili Boulanger edo Germaine Talleferre-renak, eta baita Florence Price, Emma Chacón edo Cécile Chaminade-renak, azken horiek grabazio horretan sartu ez bazituen ere.

Antonio Oyarzabalen interpretazioaren eskutik jasoko dugun eta gaur eguneraino iritsi den musika bikainari esker, eta Karmele Larrinagak komentatu eta errezeitatuko dituen olerki eta gutunei esker, bertaratzen direnek musikagile handi horiek ezagutu ahal izango dituzte, zeinak ezohiko emakumeak baitziren beren garairako eta, gehienbat, ez baitira izan oso ezagunak publiko orokorrarentzat.

Antonio Oyarzabali buruz

Antonio Oyarzabal 1989an jaio zen Bilbon, eta Londresen bizi da gaur egun, Master eta Artist Diploma ikasketak egin zituen hirian, Guildhall School of Music and Drama eskolan. Londresko Barbican Hall-en (2017) eta LSO St Luke's aretoan (2018) egin zuen debuta. Trisquel Arts Ensemble taldeko kide fundatzailea da, eta duoa osatzen du halaber Emma Besselaar txelo-jotzailearekin. Haren ibilbide luzean musikari ospetsuekin batera jo du, besteak beste Andrew Marriner, Caroline Palmer, Matthew Jones eta Allegri Quartet-arekin. Antonio Oyarzabal bere hirugarren diskoarekin iritsiko da Arriaga Antzokira: *La Muse Oubliée* (IBS Classical 2020) da, eta kritika bikainak jaso ditu. Aurretik beste bi CD argitaratu zituen: *The Inner child* (Orpheus Classical 2017) izenekoa eta J. Martínez Villar (ARSIS, 2019) euskal konpositorearen lanari buruzkoa. Eta, duela gutxi, 2023ko urtarrilean, *El fin del silencio* argitaratu du: album horretan pianistak Latinoamerikako emakumeek egindako piano-ekoizpenean jartzen du arreta, hamarkadetan isilarazita edo baztertuta egon den horretan, emakume konpositoreek idatzitako musikarekiko duen konpromisoa areagotuz.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus